

Beste zenbait Iragarpen Ofizial Otros Anuncios Oficiales

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

INFORMAZIO PUBLIKOA, Txorierri-Boroa Igarobidearen Taiuketa egiteko Proiektuari buruzkoa.
Zatia: Enekuri-Derio. 5067

DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA

INFORMACION PUBLICA del Proyecto de Trazado del Corredor del Txorierri-Boroa. Tramo: Enekuri-Derio. 5067

Euskal Autonomi Elkarteko Xedapen Orokorrak Disposiciones Generales del País Vasco

LEHENDAKARITZA

1649

132/1990 DEKRETUA, maiatzaren 15eko, zeinen bidez Emakumearen Euskal Erakundearen Zuzendaritza Kontseiluaren funtzionamendurako erregimena ezartzen baita.

Emakumearen Euskal Erakundea sortu zuen otsailaren 5eko 2/1988 Legearen 6. ataleko 2. idazatiak erakunde horren Zuzendaritza Kontseiluak Osoko Bilkuretan zein Batzorde Iraunkorren bidez jardungo duela ezartzen du, eta bere osakera, zereginak eta funtzionamendurako erregimena arauz zehaztuko direla.

Delako Kontseiluaren osakera eta zereginak Emakumearen Euskal Erakundearen egitura organikoa ezarri zuen abenduaren 13ko 301/1988 Dekretuaren 5. eta 6. ataletan araupetu zirelarik, beharrezko gertatzen da horren funtzionamendurako erregimena ezartzea.

Hori dela-eta, Emakumearen Euskal Erakundearen Zuzendaritza Kontseiluak egindako proposamena ikusirik, eta Jaurjaritza Kontseiluak 1990.eko maiatzaren 15eko bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

1. *atala.*— Honako organu hauen bitartez funtzionatuko du Emakumearen Euskal Erakundearen Zuzendaritza Kontseiluak:

- a) Osoko Bilkura.
- b) Batzorde Iraunkorra.

OSOKO BILKURAZ

2. *atala.*— Zuzendaritza Kontseiluaren Osoko Bilkuraren osakera eta zereginak Emakumearen Euskal Erakundea sortu zuen otsailaren 5eko 2/1988 Legearen 6. atalean eta erakunde horren egitura organiko eta funtzionala onartu zuen abenduaren 13ko 301/1988 Dekretuaren 5. atalean ezarritakoak izango dira.

3. *atala.*— 1. Zuzendaritza Kontseiluaren ohizko Osoko Bilkura urtean bitan egingo da gutxienez, bata

PRESIDENCIA

1649

DECRETO 132/1990, de 15 de mayo, por el que se establece el régimen de funcionamiento del Consejo de Dirección del Instituto Vasco de la Mujer/Emakumearen Euskal Erakundea.

El apartado 2 del art. 6 de la Ley de 2/1988, de 5 de Febrero sobre creación del I.V.M./E.E.E. establece que el Consejo de Dirección del citado instituto actuará en Pleno y en Comisión Permanente y que su composición, funciones y régimen de funcionamiento se determinarán reglamentariamente.

Habiéndose regulado la composición y funciones del referido Consejo en los arts. 5 y 6 del Decreto 301/1988, de 13 de Diciembre, por el que se establece la estructura orgánica dle I.V.M./E.E.E., resulta preciso establecer su régimen de funcionamiento.

En su virtud, vista la propuesta elevada por el Consejo de Dirección del Instituto Vasco de la Mujer/Emakumearen Euskal Erakundea, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 15 de mayo de 1990,

DISPONGO:

Artículo 1.— El Consejo de Dirección del Instituto Vasco de la Mujer/Emakumearen Euskal Erakundea funciona a través de los siguientes órganos:

- a) Pleno
- b) Comisión Permanente

DEL PLENO

Artículo 2.— La composición y funciones del Pleno del Consejo de Dirección son las establecidas en el artículo 6 de la Ley 2/1988, de 5 de Febrero, sobre la creación del Instituto Vasco de la Mujer/Emakumearen Euskal Erakundea y en el artículo 5 del Decreto 301/1988, de 13 de Diciembre, por el que se aprueba la estructura orgánica y funcional del referido Instituto.

Artículo 3.— 1. El Pleno del Consejo de Dirección celebrará, al menos, dos reuniones ordinarias al año,

urteko lehenengo sei hilabeteen barruan eta bestea azken sei hilabeteen barruan.

2. Ohizkanpoko bilerak ere egin ahal izango ditu Kontseiluaren Osoko Bilkurak:

- a) bertako lehendakariaren iniziatibaz.
- b) Batzorde Iraunkorrek hala eskatuz gero.
- c) bertako kideen bi herenek hala eskatuz gero.

3. Baldin eta c) kasua gertatzen bada, eskaria idatziz egin beharko da, tratatu beharreko gaien proposamena egiteko izandako arrazoiak azaltzen direlarik. Eskaria egin ondorengo hamabost egunen barruan, bilerarako deia egin beharko du lehendakariak, eta gaien zerrendak eskatutako puntuak hartu beharko ditu bere baitan nahitaez, lehendakariak besterik gehitzerik izango duelarik.

4. *atala.* - Lehendakariari dagokio Osoko Bilkurarako deia egitea, edo, hala gertatuz gero, lehendakari zereginetan ari den lehendakariordeari.

Osoko Bilkurarako deia, gutxienez, horretarako jartzen den eguna baino hamar egun lehenago egin beharko da. Lehendakariaren ustetan presa handikoa bada, lau egunetakoa izan liteke epe hori. Hala gertatuz gero presaren arrazoia adierazi beharko da deia egiten denean.

Idatziz egingo da deia, eta bertan, bilerarako tokia, eguna eta ordua adierazteaz gain, tratatu beharreko gaien zerrenda azalduko da, eta kontseilariak bilera baino lehenago argibide aski izan dezaten beharrezko gertatzen diren agiriak eta txostenak erantsiko zaizkio.

5. *atala.* - Bileretarako gai-zerrendak lehendakariak finkatuko ditu. Osoko Bilkurako kideek gai jakinak tratatzeko egiten dituzten sugerentziak behar bezala azertu beharko ditu lehendakariak, gai-zerrenda egin aurretik, nahiz eta bertan sartu beharko diren gutxienez ere Kontseiluko kideen heren batek formalki eskatzen dituen gaiak.

6. *atala.* - Osoko Bilkuraren ohizko bilerak Era-kundearen egoitzan egingo dira, Gasteizen. Lehendakariak beste lekuren bat izendatu ahal izango du bilerak egiteko, Euskal Autonomi Elkartearen barruan, horretarako bidezko arrazoirik izanez gero eta salbuespen gisa.

7. *atala.* - Osoko Bilkura legez eraturat joko da baldin eta lehendakariak gain Osoko Bilkurako gainetako kideen erdia, gutxienez, lehen deialdian bertara agertzen bada.

Lehen deialdi horretara aipatu den kide kopurua agertzen ez bada, bilerarako jarrita zegoen ordua baino ordu bete beranduago bilduko da Osoko Bilkura, bigarren deialdian; horretarako, aski izango da lehendakaria eta bokalen heren bat bertan izatea.

8. *atala.* - 1. Osoko Bilkurak bertan diren kideen botoen gehiengo soilaz hartuko dira erabakiak. Aurrekontuak eta Euskal Autonomi Elkartearen Ema-kumezkoentzako Ekintza Plan Positiboa onartzeko gehiengo osoa beharko da. Berdinketarik gertatuz gero, lehendakariaren kalitatezko botoak erabakiko du.

2. Organuko kide guztiek, idazkariak izan ezik, boto bana izango dute.

3. Eskua altxatze sistemaz egingo dira bozketak,

una dentro del primer semestre y otra dentro del último.

2. Podrán celebrarse reuniones extraordinarias del Pleno del Consejo:

- a) por iniciativa del Presidente.
- b) a instancias de la Comisión Permanente.
- c) a instancias de dos tercios de los miembros del mismo.

3. En el supuesto del apartado c) la petición habrá de ser realizada por escrito y contendrá la propuesta motivada de los asuntos a tratar. El Presidente vendrá obligado a convocar la reunión dentro de los quince días siguientes al de la petición y el orden del día deberá incluir necesariamente los puntos solicitados, pudiendo el Presidente adicionar otros.

Artículo 4. - La convocatoria de las reuniones del Pleno corresponde al Presidente o, en su caso, a la Vicepresidenta en funciones de Presidenta.

La antelación mínima de la convocatoria para la reunión del Pleno será de diez días naturales. En caso de urgencia, apreciada por el Presidente, podrá ser de cuatro días naturales. En este supuesto, se indicará en la convocatoria la razón de la urgencia.

La convocatoria será hecha por escrito y contendrá, junto con la indicación de lugar, fecha y hora de la reunión, el orden del día de los asuntos a tratar, acompañado de los documentos e informes que pudieran facilitar a los Consejeros una adecuada información previa a la reunión.

Artículo 5. - El orden del día de las reuniones será fijado por el Presidente. Las sugerencias de los miembros del Pleno para tratar asuntos determinados, serán debidamente ponderadas por el Presidente antes de la elaboración del orden del día, si bien deberán ser incluidos en el mismo los asuntos que sean solicitados formalmente por, al menos, un tercio de los miembros del Consejo.

Artículo 6. - Las reuniones del Pleno se celebrarán, ordinariamente, en la sede del Organismo, en Vitoria-Gasteiz. El Presidente podrá designar otro lugar dentro de la Comunidad Autónoma para realizar reuniones, de modo extraordinario y por causa justa.

Artículo 7. - Se considerará legalmente constituido el Pleno en las reuniones a las que asistan, en primera convocatoria, además del Presidente, la mitad, al menos, de los restantes miembros del Pleno.

Si en la primera convocatoria no concurriera el número de miembros señalado, el Pleno se reunirá una hora más tarde de la señalada para el comienzo de la reunión, en segunda convocatoria, para la que será suficiente la presencia de, además del Presidente, un tercio de los vocales.

Artículo 8. - 1. Los acuerdos del Pleno se adoptan por voto de la mayoría simple de los miembros presentes. La aprobación del Presupuesto y el Plan de Acción Positiva para las Mujeres en la Comunidad Autónoma de Euskadi deberá contar con la mayoría absoluta. En caso de empate, decide el voto de calidad del Presidente.

2. Cada miembro del órgano, a excepción de la Secretaria, dispondrá de un voto.

3. Las votaciones se celebrarán por el sistema de

horien gai diren puntuen alde zein kontra agertu ahal izango delarik, edo botorik eman gabe geratu.

4. Lehendakariak, berak hala nahi izanez gero, edo bertan diren kideen bosten batek hala eskatuz gero, bozketa idatziz eta isilpean egitea erabaki ahal izango du.

5. Idazkariak aldarrikatuko ditu bozketen emaitzak.

6. Zuzendaritza Kontseiluko edozein kidek ahal izango du gehiengoaren akordioaren kontrako boto partikularra aurkeztu eta iragarri, baldin eta bilkura amaitutzat eman aurretik egiten bada. Horrela izanik, idatziz bidali beharko dio hori Kontseiluko Lehendakariari hiru asteguneko epearen barruan. Ematen den epe horretan boto partikularren testua aurkezten ez bada, bertan behera utzitzat joko da.

9. *atala.*— Idazkariak bilkura bakoitzeko akta egingo du, bertan izan direnen izenak, tratatu diren gaiak, bozketen emaitzak eta, halakorik izanez gero, hartutako erabakiak adieraziko dituelarik.

Kontseiluko kideek hartutako akordioaren kontrako beren botoa aktan jasota uzterik izango dute, eta orobat beren erabakia hartzeko izan dituzten arrazoiak.

Idazkariak bilkuretako aktak izenpetu eta lehendakariak beroiek onetsi aurretik, Osoko Bilkurak onartu beharko ditu.

10. *atala.*— Ezin izango da zerrendaz kanpoko inolako gairi buruz baliorik izango duen akordiorik hartu, aho batez eta Osoko Bilkurako kide guztiak bertan izanik hartzen direnak salbu.

BATZORDE IRAUNKORRAZ

11. *atala.*— 1. Zuzendaritza Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren osakera eta zereginak Emakumearen Euskal Erakundearen egitura organiko eta funtzionala ezarri zuen abenduaren 13ko 301/1988 Dekretuaren 6. atalean ezarritakoak izango dira.

2. Batzorde Iraunkorreko bokalak izendapen talde bakoitzeko kide guztien bozketaz aukeratuko dira.

Zuzendaritza Kontseiluaren osoko bilkuran egingo da horien izendapena, Erakundeko Zuzendariaren proposamenez, aurrekontu-ekitaldi bakoitzerako.

3. Talde bakoitzeko bokalen ordezkapena txandaka egingo dute bertako kideek.

12. *atala.*— 1. Batzorde Iraunkorrak, gutxienera, urtearen hiruhilabeteko bakoitzeko behin egingo du ohizko bilkura, lehendakariak horretarako deia egin ondoren; lehendakariak berak ezarriko du bilerarako tokia, eguna eta ordua, eta baita gaien zerrenda ere. Bilera eguna baino gutxienera bost egun lehenago egingo da bertarako deia.

2. Honako kasu hauetan egingo ditu Batzorde Iraunkorrak ohizkanpoko bilkurak:

a) Lehendakariak, bere kabuz, hala erabakitzen duenean, eta

b) batzordea bera osatzen dutenen bi herenek hala eskatzen dutenean.

Azken kasu honetan, eskaria jaso ondorengo zortzi egunen barruan egin beharko du lehendakariak ohizkanpoko bilerarako deia.

manoalzada, a favor, en contra, o absteniéndose con respecto a los extremos sujetos a ellas.

4. Por propia iniciativa, o a petición de la quinta parte de los miembros presentes, el Presidente dispondrá el voto por escrito y secreto.

5. El resultado de las votaciones será proclamado por la Secretaria.

6. Cualquier miembro del Consejo de Dirección podrá presentar voto particular contra el acuerdo de la mayoría o anunciarlo, siempre que sea antes de levantarse la sesión. En tal caso, lo remitirá por escrito al Presidente del Consejo dentro de un plazo no superior a tres días hábiles. Transcurrido el plazo concedido, sin que se haya presentado el texto del voto particular, se entenderá éste renunciado.

Artículo 9.— La Secretaria levantará Acta de cada sesión en la que constará el nombre de los asistentes, los asuntos tratados, el resultado de las votaciones, si las hubiere, y los acuerdos adoptados.

Los miembros del Consejo podrán hacer constar en acta su voto contrario a los acuerdos adoptados y los motivos que justifican su decisión.

Las actas de las reuniones deberán ser aprobadas por el Pleno antes de ser firmadas por la Secretaria y refrendadas por el Presidente.

Artículo 10.— No se podrán tomar acuerdos válidos sobre asuntos que no estén incluidos en el orden del día, salvo que sean aprobados por unanimidad y esté presente la totalidad de los miembros del Pleno.

DE LA COMISION PERMANENTE

Artículo 11.— 1. La composición y funciones de la Comisión Permanente del Consejo de Dirección son las establecidas en el artículo 6 del Decreto 301/1988, de 13 de Diciembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Instituto Vasco de la Mujer/Emakumearen Euskal Erakundea.

2. Los vocales de la Comisión Permanente serán elegidos mediante votación de todos los componentes del grupo de designación a que pertenecen.

Su designación se realizará por el pleno del Consejo de Dirección, a propuesta de la Directora del Instituto, para cada ejercicio presupuestario.

3. La representación de los vocales de cada grupo se realizará de forma rotativa entre los miembros del mismo.

Artículo 12.— 1. La Comisión Permanente se reunirá en sesión ordinaria, al menos, una vez cada trimestre natural del año, previa convocatoria de la Presidenta, quien fijará el lugar, día y hora de la reunión y el orden del día. La convocatoria será hecha con un mínimo de cinco días de antelación a la fecha de la reunión.

2. La Comisión Permanente celebrará sesión extraordinaria:

a) Cuando, por propia iniciativa, lo disponga la Presidenta, y

b) A petición de dos tercios de los miembros que integran la misma.

En este último supuesto, la Presidenta vendrá obligada a convocar la reunión extraordinaria dentro de los ocho días siguientes al de la petición.

13. atala.— Lehendakariak gain lau bokal bertan izanik balio osoz eratu da Batzorde Iraunkorra, eta akordioak gehiengo osoz hartuko dira; lehendakariaren botoa kalitatezkoa izango da.

14. atala.— Batzorde Iraunkorraren bileretan Osoko Bilkurako idazkaria arituko da lan horretan, hizpidea izango duelarik, baina botorik ez.

15. atala.— Batzorde Iraunkorreko lehendakaritzari dagokio eztabaidak bideratzea, zuhur jokatzeko erizpidetzat harturik; horren arabera arautuko dira batzordeko kideen hizketaldiak eta horien iraupena.

Lehendakaritzari dagokio, halaber, eztabaidetan ordena zaintzea eta mantentzea, eta baita bilerak amaitutzat ematea ere.

16. atala.— Dekretu honen 8. atalean -1. apartadua salbu-, 9. atalean eta 10.ean Zuzendaritza Kontseiluaren Osoko Bilkurari buruz ezarritako arauak Batzorde Iraunkorrari ere aplikatuko zaizkio.

KONTSEILUAREN OSOKO BILKURAKO LEHENDAKARITZAZ

17. atala.— Zuzendaritza Kontseiluko lehendakariak, Arautegi honetan adierazten diren berarizko zereginak gain, Organu honen goreneko ordezkari izatea ere bere gain izango du; bera izango da bilkurretan lehendakari eta berak bideratu dituen horiek.

Kontseiluko Lehendakaritzari dagokio eztabaidak bideratzea, zuhur jokatzeko erizpidetzat harturik; horren arabera arautuko dira kontseiluko kideen hizketaldiak eta horien iraupena.

Lehendakaritzari dagokio, era berean, eztabaidetan ordena zaintzea eta mantentzea, eta baita bilerak amaitutzat ematea ere.

KONTSEILUKO LEHENDAKARIORDETZAZ

18. atala.— Kontseiluko lehendakariordeak, bere izaera horretan, lehendakaria ordezkatzeko du bere zeregin guztietan, hura bertan ez denean.

KONTSEILUKO IDAZKARITZAZ

19. atala.— Zuzendaritza Kontseiluko idazkariak bere karguari dagozkion zereginak beteko ditu, dela Osoko Bilkuran, dela Batzorde Iraunkorrean, eta Kontseilutik sortzen diren agiri guztien fedatzaile izango da, lehendakariak onespena ematen diolarik.

BOKALEZ

20. atala.— Kontseiluko organu guztietako bokalek, Dekretu honetan biltzen diren eta beren karguei dagozkien eskubideak izateaz gain, konpentsazio ekonomikoa jasoko dute bidaia eta asistentzia gastuei aurre egiteko; Emakumearen Euskal Erakundearen aurrekontuaren pentzutan joango da hori.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Dekretu honetan araupetzen ez diren prozedura kontu guztietan, Administrazio Prozeduraren Legeko I. Idazpuruko II. atalburuan adierazitako arau orokorrak izango dira aplikagarri.

Artículo 13.— La Comisión Permanente quedará válidamente constituida con la presencia de, además de la Presidenta, cuatro vocales y los acuerdos se tomarán por mayoría absoluta, siendo de calidad el voto de la Presidenta.

Artículo 14.— En las reuniones de la Comisión Permanente actuará de Secretaria la que lo sea del Pleno, con voz pero sin voto.

Artículo 15.— A la Presidenta de la Comisión Permanente le corresponde dirigir las deliberaciones, según criterios de ponderada discreción, conforme a los cuales regulará las intervenciones de los miembros de aquella y su duración.

También corresponde a la Presidenta el asegurar y mantener el orden en los debates, así como levantar las reuniones.

Artículo 16.— Serán de aplicación a la Comisión Permanente, las normas establecidas para el Pleno del Consejo de Dirección, en los artículos 8, excepto el apartado 1, 9 y 10 del presente Decreto.

DE LA PRESIDENCIA DEL PLENO DEL CONSEJO

Artículo 17.— El Presidente del Consejo de Dirección, además de las funciones específicas que se señalan en este Reglamento, ostenta la superior representación de este Organu y preside y dirige las sesiones del mismo.

A la Presidencia del Consejo le corresponde dirigir las deliberaciones, según criterios de ponderada discreción, conforme a los cuales regulará las intervenciones de los miembros de aquel y la duración de las mismas.

Igualmente corresponde a la Presidencia el asegurar y mantener el orden de los debates, así como levantar las reuniones.

DE LA VICEPRESIDENCIA DEL CONSEJO

Artículo 18.— La Vicepresidenta del Consejo, en su condición de tal, sustituye al Presidente en todas sus funciones cuando éste se halla ausente.

DE LA SECRETARIA DEL CONSEJO

Artículo 19.— La Secretaria del Consejo de Dirección cumple las funciones propias de su cargo, tanto en el Pleno como en la Comisión Permanente y es la fedataria, con el refrendo del Presidente, de todos los documentos que emanan del Consejo.

DE LOS VOCALES

Artículo 20.— Los vocales de todos los órganos del Consejo, además de los derechos propios de su cargo recogidos en este Decreto, recibirán una compensación económica con cargo al Presupuesto del Instituto Vasco de la Mujer/Emakumearen Euskal Erakundearen aurrekontuaren pentzutan joango da hori.

DISPOSICION FINAL PRIMERA

En todas aquellas cuestiones de procedimiento no reguladas en el presente Decreto, serán de aplicación las normas generales previstas en el cap. II del Título I, de la Ley de Procedimiento Administrativo.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean Dekretu hau.

Gasteiz, 1990.eko maiatzak 15.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

LEHENDAKARITZA, ZUZENTZA
ETA AUTONOMI GARAPENERAKO SAILA

1650

128/1990 DEKRETUA, maiatzaren 8koa, zeinen bidez Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomi Garapenerako Sailaren egitura organikoa aldatzen baita.

Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomi Garapenerako Sailaren egitura organikoa ezarri zuen apirilaren 19ko 89/1988 Dekretuak, Zuzentza Sailordetza eratzen duenari, ezaugarri bereizgarriak aitortzen dizkio, izan ere, Administrazioaren baitako organua izanik ere, ez baitu, besteen kasuan gertatzen den bezala, Autonomi Elkarteko errealitate administratibora bertara zuzentzen bere iharduera, Botere Judizialera baizik; horren zerbitzura baitago Zuzentza Administrazioa.

Zuzentza Sailordetza, sortu zenetik bereganatu zitzaizkion zereginak burutze bidean, eta Zedarriketara eta Kokaguneari buruzko Legean aurrikusitako garapenarekin batera, aparteko ahalegina ari da egiten urte gutxiaren buruan orain arte egin ez den guztiari ekin nahian, Euskal Autonomi Elkarteko Zuzentzaren eskasia eta gabeziak aurre eginez eta dauden bideak horren zerbitzura egokituz.

Horretarako, bi frentetan egin du aurrera, batez ere: alde batetik, obrei, ondareari eta baliabideei dagokienez, eta, bestetik, antolakuntzari eta informatikari dagokienez. Azken arlo honetan, Euskal Autonomi Elkarteko Zuzentza Administrazioa oso-osoan informatizatzekeko plan bat egin da. Bulego Judizialen eredu zaharra baztertuz, zerbitzu orokorreko sail judizialaren eredu hautatu da bertan, gaur egungo gizarteak eskatzen duenarekin bat etorriko dena, era koherentean antolatuko dena, informatizatua eta progresoa eskaintzen dituen teknologia berrien arabera egituratua, Europa guztian nagusitzen ari denaren antzekoa.

Eraginkortasun eta razionaltasun printzipioetan oinarriturik, era nabarmenean lagunduko du Plan horrek Euskal Autonomiko epaitegi eta auzitegiak berezkoak dituzten zerbitzu administratiboen berrikuntza eta hobekuntza, gizarte moderno eta demokratiko batetan epaigai denak eskatzen dituen gutxienezko erantzun diezaieten.

Guzti hori horrela, Plan hori gauzatzeko ordua iritsi delarik, komenigarria da Zuzentza Sailordetza, proiektu horiei aurre egin ahal diezaien, beharrezko duen autonomia informatikoz hornitzea; are gehiago proiektu horiek berezko konplexutasuna dutelarik eta atergabeko arreta eskatzen dutelarik azkar eta arinta-

DISPOSICION FINAL SEGUNDA

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el B.O.P.V.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 15 de mayo de 1990.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

DEPARTAMENTO DE PRESIDENCIA, JUSTICIA
Y DESARROLLO AUTONOMICO

1650

DECRETO 128/1990, de 8 de mayo, por el que se modifica la estructura orgánica del Departamento de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autónomo.

El Decreto 89/1988, de 19 de abril, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autónomo, configura a la Viceconsejería de Justicia con unos caracteres singularizadores, pues se trata de un órgano de la Administración que, a diferencia de los demás, no proyecta su actividad hacia la propia realidad administrativa de la Comunidad Autónoma, sino al Poder Judicial, a cuyo servicio está la Administración de Justicia.

La Viceconsejería de Justicia, en el ejercicio de las funciones que tiene atribuidas desde su creación y en paralelo con el desarrollo de las previsiones de la Ley de Demarcación y Planta Judicial, está realizando un excepcional esfuerzo para tratar de acometer en pocos años, todo lo que no se ha hecho hasta la fecha, supliendo las insuficiencias y carencias de la Justicia en el País Vasco y adecuando los medios al servicio de la misma.

A tal fin ha ido avanzando, sobre todo, en dos frentes, por un lado, en materia de obras, patrimonio y recursos, y, por otro, en materia de organización e informática. En este último terreno, se ha elaborado un Plan de Informatización Integral de la Administración de Justicia en la Comunidad Autónoma del País Vasco, que desechando el modelo tradicional de Oficina Judicial ha optado por un modelo de departamento judicial de servicios generales, acorde con el que la sociedad actual demanda, coherentemente organizado, informatizado y estructurado con arreglo a las nuevas tecnologías que el progreso ofrece y similar al que se va imponiendo en el resto de Europa.

Este Plan, inspirado en principios de eficacia y racionalidad, contribuirá de forma sensible a la modernización y mejora de los servicios administrativos propios de los Juzgados y Tribunales en el País Vasco, de manera que respondan a las exigencias mínimas que demanda el justiciable en una sociedad democrática moderna.

Por todo ello, llegado ya el momento de llevar a cabo la realización de dicho Plan, se hace aconsejable dotar a la Viceconsejería de Justicia de la autonomía necesaria en materia informática para acometer por sí misma tales proyectos, máxime cuando éstos presentan una complejidad específica y requieren un